

GEMMA ZABALETA

PSE-EE-KO IDAZKARITZA NAGUSIRAKO HAUTAGAIA

Bere alderdia eta oro har euskal politikagintza haize freskoarekin berritzeko asmoz sortu den Euskal Sozialismo Berria ildoren aurpegia da Gemma Zabaleta. Etzi abiatuko den Kongresuan Patxi Lopez eta Carlos Totorikarekin lehiatuko da PSE-EEren idazkari nagusi izateko.

«Elkarrizketa baliatuta lortu ahal dugu egoera normalizatzea»

Humberto Unzueta | DONOSTIA

Maite duen alderdiaren idazkari nagusi bihurtzea izango litzateke Gemma Zabaletaren oparirik ederrena bere urtebetetze egunerako. Larunbatean, bozketa egunean, 45 urte beteko ditu Euskal Sozialismo Berria ildo berritzailearen ordezkariak.

■ **Krisitik ateratzeko hiru hautagai izango dira Kongresuan. Sartu baino zatituago irteteko arriskua duzue.**

Zentzuzkoa da hautagai bat baino gehiago egotea. Areago, ona eta aberasgarria dela deritzot. Bakoitzak ideia, jarrera eta mezu ezberdinak ordezkatzeko ditugu. Aniztasunean eta aukera ezberdinen artean hautatu ahal izatea ona izateaz gain, demokratikoa ere bada. Elkarren aurka doazen Patxi Lopez eta Redondotarren trenen arteko aukeratik haratago, delegatuek beste proposamen bat aintzat hartu ahal izango dute.

■ **Oso bestelako diskurtsoak izan arren, Redondotarren eta zure arteko keinuak antzeman dira.**

Nire jarrera politikoak eta Totorikaren aurkakak izan arren, bat egiten dugu gauza baten: biok uste dugu alderdia barrutik berritu behar dela, alderdi irekiago bat eta gizartetik gertuago. Halaber, Totorikak eta nik bat egiten dugu egungo nazionalismoaren alternatiba izango den alderdi sozialista baten beharra aldarrikatzean.

■ **Totorikaren diskurtsoa abertzaletasunarekiko oso oldarkorra da.**

Horretan beste ikuspegi bat dugu, uste baitugu nazionalismoarekin gutxieneko demokratiko batzuk hitzartu eta zubi batzuk eraiki behar ditugula.

■ **Eta bakegintzaren alorrean, iritzi berekoak al zarete?**

Bakarrik elkarrizketa baliatuta lortu ahal dugu egungo egoera hobetu eta normalizatzea. Izan ere normalizazio politikoak lagunduko digu ETA desagerra-

AUTODETERMINAZIOA

«Abertzaleek eskatzea zilegia da, baina eurei dagokie hori gauzatzea eta azaltzea, ez guri»

HAUTAGAIEN BORROKA

«Hautagaiek pentsatzen dutena esan behar dute, kalkulu politikoetan erori gabe»

SAN MARKOSEKO ITUNA

«Kongresua irabazteko ituna besterik ez da, ez dago ideietan oinarrituta»

razten. Helburu horretan, tresna polizial eta juridikoak ez dira nahikoa. Zenbat eta politika gehiago orduan eta terrorismo gutxiago, zenbat eta adostasun gehiago, orduan eta indarkeria gutxiago. Terrorismoaren helburua politika galgatu eta baldintzatzea da. Horregatik, ezin dut bat egin elkarrizketa oztopatzen dutenekin.

■ **Elkarrizketa da konponbidea, baina guztiekin? Batasuna barne?**

Elkarrizketa da daukagun tresna bakarra besteei adierazteko egungo Konstituzioaren eta Estatutuaren aukerak eta dohaiak zeintzuk diren. Niretzat esparru juridikoak biziak eta dinamikoak dira, ez dira eusteko hormak.

■ **Batasuna elkarrizketatik kanpo ala barne uzten duzu?**

Batasuna legez kanpo izendatzea eraginkorra den ikusi behar da. ETA Batasuna jaio baino le-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

henagotik bizi da eta Batasuna legez kanpo utzi arren, ETAk jarraitu dezake. Zenbat eta beso politiko gehiago, orduan eta esku armatu gutxiago eta alderantziz. Batasunak egungo esparrua hartu behar luke abiapuntutzat nahi duena aldarrikatzeko. Bide hori legez kanpo uztea baino emankorragoa litzateke.

■ **Boz batzuk gal ditzakezu etzi hori esateagatik?**

Terrorismoak ez du pentsamendua galarazi behar eta bakoitzak pentsatzen duena pentsatu eta esan behar du kalkulu politikoetan erori gabe.

■ **Egiguren autodeterminazioaz hitz egitearen aldeko**

izateak eragin zuen Redondoren dimisioa eta PSEren krisia. Autodeterminazio hitza ezin aipatuzkoa da?

Abertzaleen zeregina da autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea. Ez da gure kontua, uste baitugu ez duela laguntzen euskaldunen elkarbizitzarako. Halere zilegia da beraiek hori aldarrikatzea eta horren alde egitea, baina hori zer den eta nola eta zertarako egin nahi duten azaldu behar digute. Independentziarako bidea ala herri galdeketa bat egiteko aukera den azaldu behar digute. Nik uste dut, anbiguitate baten atzean ezkututzen direla gaiari ez heltzeko. Bate-

tik, egungo legedia onartzen dute, baina bestetik horrekin hautsi eta beste norabait eram nahi gaituzte.

■ **Errenteriako San Markos jatetxean egin zen bilerara gonbidatu al zintuzten?**

Inork ez ninduen deitu hartara joateko, beharbada handik aterako zuten ituna egiteko, San Markoseko ituna deritzona, egoki ez nintzela pentsatuko zutelako. Niretzat oso garrantzitsua da nor bere ideiekin koherente izatea eta agian soslai hori ez zen gomendagarria hitzordu hartarako. San Markoseko ituna ideien eta proposamenen eztabaidan barik botere banaketan dago oinarritua, ez du funts ideologiko argirik. Kongresua irabazteko ituna egin dute.

■ **Zure hautagaitzarekin bat egiteko eskatu dute Lopezen ildoko delegatu batzuek.**

Hedabideen bitartez jakin izan dut nirekin adostasunera iritea eskatu diotela. Pozgarria da eta egia da zenbait gauzatan bat gatzela. Ni prest nago akordioak egiteko Kongresutik irtengo den PSEren zuzendaritza sendoago bat lortzeko. Orain arte ez nau ez Patxi ez inork horretarako deitu eta, gainera larunbatean hautagai izango naiz.

■ **Delegatuen bozketen emaitzak ikusita, zuk irabaztea ezustekoa izango litzateke.**

Egia da betiko mezuaren aurka eta ildo ofizialaren aurka joaten direnak oso zail izaten dutela garaipena lortzea, baina era berean horixe da nik dudana altxorra. Berritzaileak gara, inolako zamarik gabekoak eta kaltegarritzat jo daitekeen hori, gure alde egingo duelakoan gaude. Zapaterok ere inork espero ez zue-nean irabazi zuen PSOEn 35. kongresuan. Azken batean, delegatuen boza sekretua da, eta gauza bat da Herriaren Etxeetan esan dutena eta beste bat Kongresuan; behin hiru hautagaien diskurtsoak entzun ondoren, nola baliatuko duten euren boza.